Irabazi asmorik gabeko elkarteek, historian zehar, laguntza behar duten pertsonak zaintzen lan ikaragarria egin dute. Gizartearen ordezkari instituzional legez, lan hori eskertu beharreen nago.

Berrogei hamar urtetan gauza asko aldatu dira gure gizarte honetan. Caritas sortu zenean, aitzindaria izan zen gizarte-laguntzan. Besterik ez zegoenean, herri administrazioak ez zirenean gai oraindik giza-beharrizanei erantzuteko, erakunde honek laguntza-zerbitzu eta baliabide modernoak sortu zituen, herritarrengandik hurbilak.

Dakizueenez, gaur egun, eguneroko bizitzarako laguntza behar duten pertsonak zaintzearen ardura instituzionala da; Eusko Jaurlaritzan, Foru Aldundian eta Udaletan dago kokatuta Euskadin, baina irabazi asmorik gabeko elkarteon laguntza izan ezean, ez ginateke gure lana betetzeko gai izango.

Zuen kalitatezko lan arduratsu eta lagunkidea, behar beharrezkoa dugu, horregatik, bene-benetan mila esker guztioi.

Caritasi eskerrak emotea.

Hirugarren Sektorearen gaia Bizkaiko ikuskera instituzionaletik aztertzeko eskatu deuste Caritaseko arduradunek. Erantzukizun haundia da niretzat, batez ere, beti lez, interesgarri eta bikain jardun dauan Jon Sobrinori entzun ondoren.

Zailtasunak zailtasun, ezin neutson uko egin Elizbarrutiko Caritasen eskaereari. Asko da gizarteak erakunde honi zor deustona. Historiako berrogeita hamar urteotan, beti egon izan da beharrian gehien egoan lekuan; lehenengo eta behin, ezer ez egoan lekuan gizarte zerbitzuak sortuz; gero, administrazioek gizarte politiken sustapenean zegokien erantzukizuna bere egiten eben neurrian, bere jakintza eta lankidetzak eskeiniz, beti ere azkenez arduratuz.

Horregaitik, nire berbaldi honen hasieran, bihotz-bihotzez eskerrak emon gura deustodaz Caritasi eta erakunde hau egin dabene eta egiten dabene gizon eta emakume guztiei eta bakoitzari.

Berbaldi honetan ezin dot sartu, giza, pertsonal eta profesional ikuspuntutik aztertu gurako neuken guztia. Horregaitik, nire aurkezpen honetan, boluntarioen balioen iturriak aztertuko dodaz, eta boluntarioen izatasuna eta honeek besteen alde dabene zerbitzari sena landuko dot. Zerbitzu horren balio, eskakizun eta arriskuez ere jardungo dot eta, azkenik, arrisku horreei aurre egiteko moduari buruz hausnartuko dot, batez ere boluntario eta solidaritate senaren jatorrira itzuliz.

Nire azalpenen atzean, Imanol Zuberoren, Fernanto Fantovaren testuak eta Sailaren beraren agiri eta esperientziak dagoz.

Mundu guztiak gizarte guztietan.

Bizkaiko edo Euskadiko Hirugarren Sektoreari dagokionez, bistakoa da alde haundia dagoala gure errealitatearen eta El Salvadorreko edo txirotasun, desbardintasun edo bidegabekeria arazo larriak jasaten dabezan beste herrialde batzuetako errealitatearen artean.

Ez dot herrialde garatuez eta garapen bidean dagozan herrialdeez berba egin gura, termino horreek, nire ustez, ez datozalako bat gaur egungo errealitateagaz. India eta Txina lako herrialdeak, gaur egun, ekonomiari dagokionez, guztiz aberats eta dinamikoak dira, eta historian



zehir aberastzat izan doguzan ekonomientzat mehatxu dira; hala ere, arazo larriak eta gizarte desbardintasun itzelak dabez.

Alderik garrantzitsuenak, giza garapenari dagokienez, beste honi lotuta dagozala esango neuke: giza eskubideak, askatasunak, partehartze demokratikoa, aberastasuna banatzeko mekanismoak eta ongizatearen sustapena bermatzen daben egiturak egoteari.

Hala eta guzti ere, sailkapen bat ala bestea aukeratu, munduko gizarte eta herrialde guztiek dabez euren baitan "mundu" guztiak: lehenengoa, bigarrena, hirugarrena, laugarrena, e.a. klase aberats eta boteretsuak, klase ertainak, baxuak, txiro eta behartsuak, azkenak... batera bizi dira. Geure artean ere, beharrizan material edo espiritual larriak dabezan gizon eta emakumeak, beharrizanean, abandonatuta edo eskubideak urratuta bizi diran gizon eta emakumeak dagozala gogoratu eta autortu behar dogu.

Orokorrean, aberastasun maila haundia dogu, nahiz eta horretaz jabetu ez edo jabetzerik nahi ez. Oharkabetasun horrek, hemen edo hemendik kanpo, ongizate horretan parte hartzen ez dabenenganako alkartasunik ezera garoaz. Zenbat eta hobea izan gure bizi maila, orduan eta nabarmenagoa izan beharko leuke, gure inguruan, bizimodu duinerako baliabide nahiko eta egokirik ez daben egoerak. Hala ere, gure bizimodu honen maltzurkeriarik nagusienetakoa, beharrizan eta etsipenez jantzitako egoera honeek ikusiezin bihurtzea dala dirudi. Ez gara jabetzen daukagunaz eta gure hurkoei alkartasun eta konpromiso arloan zor deutsegunaz.

Esperientzia solidarioa.

Esperientzia honeek gaintitzen lagundu behar deuskun konpromiso solidario, pertsonal eta kolektiboa da.

Alkarteetan antolatutako esperientzia solidario kolektiboa, gaur egun Hirugarren Sektorea deitzen doguna, beharrezkoa da gizarte guztientzat, baina desbardina da; hain aberatsak ez diran edo hainbeste garatu ez diran herrialdeetan, "egituratzailea", "errebindikatzailea", "aringarria" da; egituratutako beste sare batzuk ez egotean, berau dago.



Gurelako gizarteetan, "errebindikatzaila" eta "zerbitzu emoilea" da funtsean; beste instantzia publiko batzuei exijitzen eta laguntzen deutse.

Herritarrak eta euron eskubideak ordezkatzeko, zerbitzatzeko eta defendatzeko dabezan erakundeekin, gizarte zibil eta politiko antolatua, egituratua egotea da egoera batzuen eta besteen arteko aldea. Aldeak alde, oinarria bat da: esperientzia solidarioa.

Gero eta indibidualistagoa dan gizartean bizi gara; askatasuna burujabetza lez, ia bakardade lez, ulertzen dau. Todoroven berbetan: "gainerako gizakiekazko hartuemona zama bat da eta horretaz libratzen saiatu behar dogu".

Honela, norberaren gauzez arduratzetik eraikitzen da guztion ongizatea. Alkartea murriztu egiten da eta alkartasuna zirkulu txikiago eta bananduagoetan gordeten da. Batzuetan, alkartasuna eta guztion ongizatea interes ezkutua eta egoisten erakargarri edo tresna lez ere erabilten dira.

Horregaitik, alkartasuna zer dan gogoratu beharra dago. Argigarri suertatu jatan hainbat autoregandik hartutako adibide batzuk ekarri dodaz berbaldi honetara.

Jose Antonio Marinarentzat, "alkartasuna, soldatuta egotea da, hau da, ni soldatuta nago zure erantzukizunekin eta soldatuta zure beharrianekin".

Franco Crespiren arabera, "ezinbestekoa da besteagazko hartuemona ez dala aukeraketa pertsonala autortzea; bere existentzia autortu aurretik ere egin dogun zorra dogu beragaz".

Simone Weil: "gizaki guztienganako betekizuna dago, gizaki izateagaitik bakarrik, beste baldintza barik ere, eta baita gizakiak berak betebeharrak onartzen ez badau ere".

Geure burua bestearen zordun autortzeko gauza bagara bakarrik eskeini ahal izango deusagu gure baldintza bako laguntza.

Gizatasuna emoten deuskuna eta garatzeko ezinbestekoa doguna, zera da: babesgabe egon eta errez kaltetzeko modukoak diran gizon eta

emakumeak maitasunez onartzeko prest egotea. Eskakizun etikoa da, eta horrela, ezin da mugatu alkar onartze hori sortzen dan alkartera.

Alkartasuna, beste inoren esku itzi ezin daikegun erantzukizuna da, eskatzen deuskunari laguntzen ez badeutsagu, biktima eta geure gizatasuna izten doguzalako atzean.

Pablo Nerudak inoan: "nortzuk dira sufritzen dagozanak? Ez dakit, baina neureak dira." (Kapitainaren bertsoak).

Adela Cortinaren berbak erabiliz, "aporofobia" gure gizartean hedatu dala esan geinke. Grekoko "aporoa" berbeak trukean ezer emon ezin ez dauana izendatzen dau. Hau da, pobreak, eskeintzeko ezer ez dauanari gorrotoa deutsagu, trukearen logikatik bizi garan gure gizartean.

Eta hementxe jarten da jokoa alkartasuna.

Boluntarioen militantzia, konpromiso solidarioaren adierazpen lez.

El voluntariado es una forma de expresión de la solidaridad que podemos describir desde la experiencia de la parábola del Buen Samaritano.

- ☞ Alkartasuna gauzatzea ez da aparteko, eguneroko bizitzatik kanpoko jardurea, eguneroko bizitzan gertatzen dan zerbait baino.
- ☞ Bide bazterretara begitatzeko gaitasuna garatu behar dogu.
- ☞ Gelditu egin behar dogu.
- ☞ Ezerk ez dau justifikatzen geratu barik aurrera egitea.

Boluntario lez jardutea, besteekazko konpromisoz jardutea da; gure giza izatearen betebeharrak gauzatzea.

Boluntarioen berezitasuna, jarduera kolektiborako gainerako eretatik bereizten dauana, hauxe da: bere lorpenek ez dabela garrantzi materialik borondatezko jarduera hori egiten dabenentzat.



Boluntarioak gizon eta emakumerik ahulenekazko distantzia autortu egin behar dau eta gainditzeko gauza izan. Eta tarte hori gainditzeko bide bakarra dago: asetasunaren kulturak eraturako munduan, gure lekua beste aldean dagoala konturatzea.

Boluntarioak gizarte jardueraren erantzukizunetik.

Guri dagokigunez, boluntarioak makina bat erakunderen inguruan egituratzen dira eta horreetan parte hartzen dau 18 urtetik gorako lagunen %11k, eta emakumezkoak dira portzentaje altuan. Jarduera boluntarioetan parte hartzearen eta hirugarren sektoreko erakundeen konpromisoaren mailari dagokionez alde haundiak dagoz, horrenbeste gertatzen dan lez jarduera honeei eskeinitako denporeagaz.

Niri hemen dagokidana gizarte jarduerako Hirugarren Sektorearen ikuspuntu instituzionala eskeintzea danez, gizarte esku-hartze zuzenean, hemen azkenekoez arduratzen diran sen solidario eta boluntariodun erakundeak hartuko dodaz aztergai.

Ezaugarriak.

Hona hemen haren ezaugarrietako batzuk:

1. Erakundearen eta inguruaren arteko alkarreragin maila altua: erakundeko lagun asko dago hartuemon zuzen eta iraunkorrean kanpoaldeagaz eta, batez ere, gizarte esku-hartzearen jasotzaile diran gizon eta emakumeekaz. Hirugarren Sektoreko erakundeek 'kapilar' asko zuzentzen dabe ingurura.
2. Erakundearen interesa daben edo konprometituta dagozan gizabanako eta gizataldeen konplexutasuna eta, sarritan, egoera paradoxiko edo kontraesankorrak instantzia edo solaskide desberdinen beharrizan edo eskariei dagokienez.
3. Erakundearen helburu zein bideetan, alkarren arteko loturea eta eragina sustatzen da.
4. Sarritan, lurralde txiki bat edo gizatalde jakin eta hurko bat da erreferentzia.



5. Gizarte esku-hartzea gauzatzen daberen pertsonen potentzialtasuna eta, aldi berean, ahultasuna, pertsona eta alkartearen erabileraren guztietako esparru eta uneetan sakon sartzen direlako eta, askotan, gitxi autortutako jardueretatik edo estatus profesional edo instituzionalatik.
6. Soldada jasotzen daberen beharginen eta boluntarioen batera jardutea eta, erabileraren, erakundearen konektatuta dagoan gizarte sareetatik datozen edo ez datozen beharginen batera jardutea eta, ondorioz, konpromiso maila eta mota desberdinak egotea.
7. Hauskortasuna, orokorrean, aktibo finantzario eta materialen terminoetan.
8. Neurri handi batean, erakundetik esku-hartzen den talde edo alkartearen barruan edo honetatik hurbil egoteagaitik jardetsitako eskumenen ondare garrantzitsua.
9. Partehartzeaz arduratzen den egiturearen eta gestioaz arduratzen denaren arteko aldi bereko izate gitxi gora-behera baketsu edo gatazkatsua.
10. Balioen garrantzi handia, erakundearen heldutasun, profesionalizazio eta egiturazio etapa desberdinetan haren eusteko eta haren birsortzeko zailtasunak izaten diren arren.

Arrakastaren giltzak.

Guretzat, bere baliorik garrantzitsuenetakoa ondorengo hau da: Hirugarren Sektoreak balio itzela ematen deusola gizon eta emakumeen, batez ere beharrezan dagozanen eskubide eta ongizatearen defentsaren jardueraren publikoari.

Gizarte errealtetatik hurbil dago, eta, ondorioz, nahiko errez antzeman leikez beharrezan barriak. Antzemateaz batera, arretarako dispositiboak jartzen ditu martxan, nahiz eta behin-behinekoak izan, administrazio publikoak eskatzen den zerbitzuaren garapenerako oinarriak jartzen dituen bitartean.

Egoera honek, berehalako erantzuna eskatzen daberen beharrezan larrien aurrean gertatzen dira; aitatutako erantzun hori, lehenengo fasean,



jarduera boluntarioaren eta egitura txikien bidez emoten da gehienetan. Egoera honeen arabera ondorioztatu daikegunez, zerbitzuen sorrerea beti ez dago gogoeta estrategikotik bideratuta, premia gordinetik baino.

Eta administrazio publikoak zein zerbitzuen jasotzaileak une honetan hasten gara hirugarren sektoreko erakundeak beste erizpide batzuetatik begirutzen: kalitatea zerbitzuan, eraginkortasuna gestioan, jasangarritasun ekonomikoa, e.a.

Hirugarren Sektoreak moldatu egin behar dau errealitate horretara, bere sendotasunak aprobetxatuz eta esparru desbardineta eboluzionatuz:

☞ Bere giza kapitala da bere sendotasunik haundiena. Erakundeen aktiborik garrantzitsuena da. Kalitate teknikoa giza kalitateari lotura dago. Pertsonalaren kudeaketa ona egiteko, honeek bete beharko litzatekez:

- Plangintza bultzatu epe luzera.
- Giza baliabideak kudeatzeko erizpide argiak zehaztu.
- Gizakien sustapen eta gaikuntza sustatu.
- Borondatezko lankidetzarako bideak zabaldu.
- Lan esparrua sailkatu.

☞ Egitura ekonomiko ona. Hirugarren Sektoreko erakundeen ekonomia jasangarritasuna batzuetan badaezpadakoa da, baliabideen ezaugarriei egokitzen ez jakezan finantzaketa sistemen menpe dagoalako (finantzaketa puntuala, dirulaguntzak). Helburuak honetara bideratuko dira:

- Hainbat urtetarako finantzaketa egitarauak negoziatu.
- Kontratazio publikoan gizarte klausulak negoziatu.
- Finantzaketa pribatuaren maila gehitu, elkarte sarea zainduz.

- ☞ Hirugarren Sektoreko erakundeek protagonismo handia jadetsi dabe zerbitzuen kudeaketan eta, ondorioz, euren izatasunaren (misinoaren) eta egitekoaren (jardueraren) arteko koherentzia oinarria bermatzera bideratutako estrategiak hartu behar dira.
- ☞ Erakundearen barne orekeari eutsi behar jako, egitasmoen jasangarritasuna bermatuz; horretarako, egitasmoen bolumenaren araberako kudeaketa egitura garatu behar da, ekipoak sortu eta euren egitekoa beteteko baliabide egokiez hornitu.
- ☞ Hirugarren Sektoreko erakundeei ere eskatu behar jake zerbait: boluntarioen erakundeen arteko hartuemon eta loturak gehitu dagiezala. Gizarte jarduerarako Hirugarren Sektoreko abotsak gitxitan entzuten dira batera.
- ☞ Gizarte jarduera keta Hirugarren Sektorea agertzera emotea, Estatuaren, merkatuaren eta Hirugarren Sektorearen baterako gizarte erantzukizunaren ikuskeratik egin behar da. Beste gizarte ekintzaile batzuekako hartuemonetarako erizpide argi batzuk izatea eskatzen dau honek:
 - Administrazio Publikoekazko hartuemonerako gaur egungo mekanismoak (dirulaguntzak esleitzeko erizpideak eta gizarte klausulak jasotzen dabezan kontratuak) barrero definitu eta gardentasuna eta zerbitzuen kudeaketa etikoa bermatuko daben kontrolerako mekanismoak ezarri.
 - Enpresak, lankidetzarako gizarte ekintzaile baliozkotzat hartu.

Gizarte jarduerak sektore guztien partehartzea eskatzen dau.

Administrazio Publikoaren jarreratik, aurrez aurre doguzan gizarte beharrizan eta arriskuen garrantzi eta konplexutasuna kontuan hartuta, ezin deusagu uko egin erantzuteko doguzan dispositiboen arteko bakar bati ere: familia eta alkarte sareek, Hirugarren Sektoreko erakundeek eta irabazi asmoa daben enpresek,... guztiek dabe zeresanik gizarte eskuhartzean, Administrazio Publikoagaz batera.

Administrazio Publikoak eta Hirugarren Sektoreak, gaur eta hemen, alkar sendotu behar dabe euren berariazko balioetan, euren nortasun



bereizgarrian, euren gaitasun bereizleetan eta berariazko kulturari, eta, gainera, euren arteko sinergiak hobetu eta sustatu egin behar dabez.

Eta hona hemen botere publikoengandik espero doguna: politika sendoa, iraunkor eta jasangarriak uztartuz, eraginkortasunez berrmatu dagiela unibertsaltasuna eta zuzentasuna beharizanen asetzeko eta gizarte eskubideen gauzatzea. Eskubide subjektiboak berrmatuko dabez eta gizarte eskubideen autorpena bultzatuko daben lege barriak helburutzat hartuz egin behar da aurrera. Plangintzan, legegintza-garapenean eta finantzaketan ezarri behar dira.

Administrazio publikoa eta hirugarren sektorea.

Hirugarren Sektoreak, bere aldetik, gizabanakoen eta alkartearen partehartze ekintzaile, boluntario eta solidarioa antolatu eta bideratu behar dau, gizarte arazo eta erronkei aurre egin ahal izateko. Hirugarren Sektoreko erakundeek ezaugarriak dagokienez, gure ustez, honakoak sustatu behar dabez: hurkotasun arretatsua, jarrera jagoa eta alerta kritikoa gizon eta emakume guztien eskubideen alde, gizon eta emakume ahulenei lehentasuna emonez. Lehen esandakoaren arabera, baliabideen kudeatzaile huts bihurtu ez daitezkan.

Hirugarren Sektore hau guztiz baliotsua da guretzat, gizarte esku-hartzea gauzatzen eta konpartitzen luzaroan diharduten pertsona eta erakundeek izate, iraute, bizitasun eta barritzeagaitik. Dana dala, batzuetan erakunde batzuen nortasuna desitxuratu egiten da, beste batzuetan, koordinaziorako dinamikak ez dira nahiko izaten eta, ondorioz, sektoreak makaltasun irudia erakusten dau.

Administrazio Publikoek zein Hirugarren Sektoreak makina bat tirabira jasan behar dabe eta honek gaintu beharrean dagoz egoeretara moldatzeko, gizon eta emakume guztientzako bizimodu duinerako aukerak, neurri handi batean, Administrazio Publikoek eta Hirugarren Sektoreak dagokien lekua berraurkitzeko eta gizarte ongizatearen eratzean daben lekua sustatzeko ahalmenaren menpe egongo diralako.

Hirugarren Sektorearen eta Administrazio Publikoen arteko hartuemonak ez da behar bezain aberats eta bizia. Ugariak dira alde bietan aurreiritziak eta mesfidantza eta ez da noizbehinkakoa beste sektorearen ikuskera estua. Hara zer ulertzen dogun ikuskera estua:



erakunde publiko batek Hirugarren Sektoreko erakundeak zerbitzu hornitzaile huts lez ikustea eta Hirugarren Sektoreko erakunde batek Administrazio Publikoak finantzatzaile huts lez ikustea. Sektore biek alkar autortu eta euren artean bidezkoa dan tentsinoa naturalizat jotzen dabenean gauzatu daitezke sinergiak.

Erantzukizun publikoa.

Zaila izango da gure inguruan gizarte jarduerarako Hirugarren Sektorea sendotzea, gizarte zerbitzuen arloan konpromiso publikoa sendotzen ez bada. Konpromiso horrek, gainera, eskubideen berme eta baliabideen gehikuntza bihurtu behar dau.

Administrazioak erantzukizun haundia dauka, eta gizartearen eskakizunak ere gero eta haundiagoak dira arlo horretan. Ezinbestekoa da gizarte zerbitzuen sistemaren egituratzearen eta gizarte esku-hartze orokorraren alde egingo dauan politika publikoa.

Ondorengoak definitu beharko litzateke guztion partehartzeaz eta bide dinamiko, argi eta egonkorretatik:

- ☞ Gestino publiko zuzenari dagokiozan alderdiak.
- ☞ Gizarte merkatuetan kontratatu ahal izango diran zerbitzuak.
- ☞ Esparru nahiko egonkorrean, gizarte ekimenagaz kontzertatutako jarduerak gauzatzeko daben auziak.
- ☞ Hitzarmenen jokoak.
- ☞ Hirugarren Sektorearen jarduera autonomorako berariazko esparrua, Administrazio Publikoen laguntza haundiago edo txikiagoaz, dirulaguntzen bidez, esate baterako.

Beharrezkoa dirudi Hirugarren Sektorearen inguruko legeria gaurkotzea eta, beharbada, sektorearen tratamendu globala sektore lez, botere publikoen aldetik.

Sektoreen arteko konfiantza, alkarrekikotasun, autorpenezko jarraibideetan sakondu behar dogu, jarrera horreek Hirugarren

Sektorearen eta Administrazio Publikoen arteko joan-etorriko, partekatzezko hartuemonaren giltzatzat hartuz.

Hirugarren Sektorearen arriskuak.

Beste era bateko esfera eta erakundeek eskeini ezin daikeezan ondasun mota bat eskeintzen dau Hirugarren Sektoreak.

Erakunde boluntarioen gizarte esku-hartzerako bideak eta honeen eraginak eta sektore publikoak gizarte esku-hartzea gauzatzeko darabilzanak eta honeen eraginak desbardinak dira eta baita merkataritza-sektoreak gizarte jardueran aritzeko dituanak ere.

Dana dala, arriskuak dagoz. Erakundeak kudeatzerakoan izan daikegu arazoa, euren misinoetan jasotako helburuek beste helburu pertsonal, ekonomiko eta antolatzaileekin tupust egin daikeelako. Erakundeak, misinoari, erakundearen izatasunari lotutako helburuak lortzeko ezartzen diran sistemen multzoa dira. Gainera, helburuen inguruko akordioa ez da beti ez argia ezta estatikoa ere, ñabardura zorrotzak eta desadostasunak egon daitekez horreek zelan lortu ebazterakoan.

Horregaitik, badira kontuan hartu beharreko gertakari batzuk. Iraganean ezagutu izan doguz eta badakigu zeintzuk diran euren ondorioak, horregaitik, deskribatu eta aholkuren bat emoteko atrebentzia izango dot:

1. Erakundeak, erakunde izatearren ditu helburu batzuk; mantenu eta biziraupenagaz zerikusia dabe eta, batzuetan, misinoaren helburuen aurretik jarten dira.
2. Batzuetan, erakundeak nork bere interesak asetzeko bide bihurtu daitekez; erakundeok, nork bere burua nabarmentzeko, nork bere osotasuna jadedesteko erabilten dira.
3. Pertsona desbardinek erakundeko kokapen desbardinetan berariazko interesak izatea gertatu daiteke. Bakoitzak bere arloari emoten deutso garrantzia: zerbitzua eskeintzen dauanak, bere egitekoa garrantzitsuena dala uste dau, baliabideak bilatzen dituanak ere bai, zuzendaritzaz arduratzen danak, giltza haxe dala uste dau.

Egoera honeetan, egitekoa konplexu eta zaila da. Hona hemen aholku batzuk konpontzen saiatzeko:

- ☞ Arretea: gertatu daitekeela kontuan izan.
- ☞ Azterketea: sua ez gehiago biztu, arrazoiak bilatu,...
- ☞ Jarduerea: prozesu gardenak, partehartzea sustatu, informazioa banatu, bakoitzaren gidaritzza autortu eta sendotu.

Erakundeak, esparru pribilegiatuak dira gizon eta emakumeak eta geure buruak ulertzeko. Bakoitzaren bertute eta akatsak haunditzen diran esparruak dira. Erakundeetan, egoera idilikoa izango daneko itxaropenagaz jarduten badogu, sendotu zein suntsitu daikeezan aldagarriekin kudeatzeko aukerea galduko dogu.

Beste arrisku batzuk ere badagoz jarduera solidario eta boluntarioarentzat, administrazioagazko hartuemonean. Esate baterako, jarduera solidarioa perbertitu egin daiteke, baliabideen kudeaketa publikoak ezartzen dituan eskakizunengaitik. Alkarteek, gestore espezializatu eta zerbitzu emoile eraginkor bihurtu guran, euren sustatzaile dan espiritua -jarduera boluntario eta berehalakoa- galdu daikete neurri batean.

Ez dakigu honelako arriskuak saihesteko dan ala beste arrazoiren bat dagoan, baina batzuek Hirugarren Sektorearen eksklusibotasuna defendatzen dabe gizarte jardueran. Agiri publiko batzuetan jasotzen danez, sarean lan egiteko beharrianari buruzko gogoetearen ostean, zera ondorioztatzen da: nolabait lortu dala “hirugarren sektorearen nortasuna itxuratzea eta aitortpena -gutxienekoa bada ere- Administrazio Publikoen aldetik”. Dana dala, ondorio honeetako baten jasotzen danez, “hirugarren sektore lez, gizarte zerbitzuen protagonista absolutu izatea da benetan gurako geunkena: liderra izan merkatuaren eta Administrazio Publikoen gainetik”. Ikuspuntu honeek ere arriskutzat hartu daitekez, baztartaileak diralako, administrazioa ez dalako herritarrek adierazotako borondatearen eroale lez (bikaintasun haundiagoz ala txikiagoz) autortzen eta bere gizarte partehartzea nagusitasuntzat ulertzen dalalako, ez zerbitzutat.

Jarrera honen parean, gizarte mugimenduen inguruko Daniel Innerarityren idazki bat gogora ekarri gura dot: "eraginkorrak izan gura badabe, euren mugak, euren benetako garrantzia autortu behar dabe, euren berezitasuna traizionatu barik. Zerbaitetarako balio dauanak ez dau danerako balio eta gauza probetxugarriren bat alperrik galtzeko biderik onena edozertarako erabiltea da. Gizarte mugimenduek, herritarren partehartze ez konbentzionalak, edo alderdien eskutik egiten ez danak, zeregin haundia dabe eta erabat zapuztuko leukee gizartearen ordezkariek oinarritzat dituan demokraziaren lekua hartzen saiatuko balitzaz. Aitatutako demokrazia horrek zuzenketa asko behar dau, baina oraindik ez dau hautagairik berau ordezkatzeko".

Nire ustez, benetan, bi elementuk emoten deutsoe zilegitasuna Hirugarren Sektoreari; honeei esker eratzen da bere nortasuna eta honeek barik egitasmoak porrot egingo leuke: bere independentzia eta sen boluntarioa dira.

Independentziak ez dau ez isolamendua, ez eksklusibotasuna ez konpromisorik eza adierazoten; erakundea sortu zaneko zerbitzurako ardura edo eskeintza adierazoten dau, beste edozein interes edo loturaren gaintik.

Sen boluntarioak ez dau esan gura berezitasunari edo profesionaltasunari uko egin behar jakonik; behartsuen aldeko zerbitzu eta eskeintzazko borondateagaz dau zerikusia.

Geroa.

Hirugarren Sektore finkatuan sinisten dot, gizarte solaskide lez jarduteko gauza dan eta, era berean, bere idiosinkrasia eta balioak galduko ez dituan Hirugarren Sektorean.

Gerora, politika, estrategia eta arau baldintzak alde batera itzita, seguruenez boluntarioen sektorearen zoria gizarte jardueran zuzenean parte hartzen daben pertsonen arteko hartuemon zuzenaren mikroespazioan jokatuko da.

Horixe izango da gizarte jarduerarako gobernuz kanpoko erakundeen funtsezko oinarria eta bere existentziaren proba: gizarte esku-hartzearen jasotzaile diran pertsonak, erakunde eta sareetan sartuta, laguntzarako

hartuemon eraginkor eta asegarriak ezartzeko prest dagozan pertsonak aurkitu dagiezala. Eta alderantziz.

Pertsonok, danok eta bakoitzak, etiketa guztiak alde batera itzita, daukagu gure esku Hirugarren Sektore hori, eta honegaz batera, gizarte ekintzaileago eta solidarioagoa eraikitzeke aukerea. Jasotzen dauan arretan berotasun eta jarraitasuna autortzen dauan erabiltzailea. Motibatuta eta baloratuta sentitzen dan ordainsaridun behargina. Alkarteren batean boluntario lez jarduten diharduan gaztea. Bere esperientzia eskeini daiken jubilatua. Kartzelatik ataratako jentearen gizarteratze prozesuan laguntzeko aire freskoa sentitzen dauan emakume enpresaria. Kalera urtetea, gaztetxo batzuekin batera jarrita dagoan kaleko hezitzailea ikusten dauan zinegotzia.

Gizarte esku-hartzerako erakundeek euren sorrera ekarri eban gizarte sarea erreproduzitu behar dabe. Ez da nahiko erakundearen jatorrian alkartasun txinparta egotea; gizarte jarduerarako boluntarioen erakundeak euren sortzea ekarri eban "humus" solidario hori elikatzeaz arduratzen ez badira, lehenago ala beranduago, handik jasotzen daben elikagaia ez jake helduko eta euren nortasun ezaugarriak lausotu eta galdu egingo dira. Ezin dogu energia solidarioa arduragabe kontsumitu. Erakundearen estrategia eta jarduerak alkartasun dinamika horren erreproduzino eta berrasmatzera zuzendu behar dira.

Gizarte jardueraren arloan profesional edo boluntario bikainak izan gaitkez eta, era berean, ezelango konpromisorik ez hartu edo gizarte eraldaketari begira ekintzarik ez egin, edo beste era batera esanda: arlo indibidualean, pribatuan, profesionaltasunez jardun daikegu, pertsonen hazkundera, autonomia maila haundituz, gauza garrantzitsu batez jabetu barik: bidegabeko egiturak eraldatu daikeguzala eta, karitatez, emotez edo tolerantziaz ez ezik, dagokigulako baino, danontzako "ordena" hori barriri ezarri daikegula.

Erakundearen misino eta ikuskeran dago eraldaketea, baina bakarkako esku-hartzetik, gizarteratsetik, integratzen haratago doa. Erabiltzaileen partehartzea funtsezkoa da gizarte eraldaketarako. Argi ikusten dogu gure jardueraren jasotzaileen protagonismo, indar eta erabagitzeko ahalmena, baina, era berean, zail eta deseroso egiten jaku hori euren autortzea. Gizarte eraldaketearen abiapuntua gizon eta emakume bakoitzaren bakarkako eraldaketea da.

Amaitzeko, beste ideia bi.

Lehenengoa:

"Adiós, pequeña. Adiós" pelikularen hasieran, protagonistak, bere jaioleku eta bizileku dan auzo pobrea erakusteaz batera, hauxe dinosku: "ez da aukeratzen gehien definitzen gaituana, gure uria, gure auzoa, gure familia,...".

Azken batean, zoriak larregizko pisua dau lagun askoren bizitza zehazterakoan. Jente asko ahultasunera kondenatzen dauan zori txarra da. Baina zoria abagune hutsa da eta ezin dogu itzi egoeraren araberako zerbait izatea lagun asko bazterketara kondenatzen dauana.

Zuok, Hirugarren Sektoreko erakundeok eta guk, Administrazio Publikoak, aukeratu daikegu zer egin, ze politika garatu eta lagun askoren zoria aldatu daikegu.

Bigarrena:

Ignacio Ellacuriak honela ulertze neban adimenaren egitura formala: "errealitatea norberegianatu eta berari aurre egin", eta hau hiru alderditan banatuta:

☯ Errealitatearen ardura hartu: adimenaren alderdia.

☯ Errealitatea nork bere gain hartu: alderdi etikoa.

☯ Errealitateaz arduratu: alderdi praxikoa.

Eta Hirugarren Sektoreko erakundeek eta Administrazio Publikoek gogoeta hau bere egin behar dabe, bizi dogun errealitate asko aldatu egin behar dogulako, aldatu daikeguzalako, derrigorrezkoa dalako aldatzea. Eta errealitatea nork bere gain hartzeak, arriskuak hartzeko prest egotea eskatzen dau askotan. Oraingo eta geroko erronka da guztiontzat.